

IKAZKINA ETA HERIOAREN KONDAIRA

Euskal Herriko leku batetan ikazkin gizajo bat bizi zen larriak igarotzen eta goriak ikusten.

Arrats ilun hotz batetan afaltzen ari zenean itxura arraroko ezezagun batek bere etxeko atea jo zuen, Jainkoa zen.

— *Nor da?* —esan zuen ikazkinak

— *Jainkoa naiz eta zure etxean, lehorrean lo egin nahiko nuke* —erantzun zion.

— *Ez, zu ez, zoaz hemendik lehen bait lehen! zutaz ez dut ezer jakin nahi, zu ez zara sekulan nere etxean sartuko zeren zu mundu honetako erruduna zara batzu errege bezala bizitzeagatik eta beste batzu beti pobre, nekaturik eta gosarik—.*

Hurrengo arratsean, itxura desberdinez, berriro aurkeztu zen ikazkinaren etxean, atea jo eta aurreko egunaren modura.

— *Nor da?* —galdetu zion.

— *Herioa naiz eta lehorrean lo egin nahi dut—*

— *Zu bai, zuk guztiak berdin tratatzen dituzu nahiz aberats ala pobrea izan* —erantzun zion ikazkinak.

Etxean sartu, eskuak eta oinak berotu, bere afaritik eman, ohea prestatu, bere barruan etzan eta zerraldo lo geratu zen; hurrengo goizean ere bere gosaritik eman zion eta bukatu ondoren, herioak berarekin hain ondo portatzeagatik zer nahi zuen galdetu zion.

— *Errege bezala bizi!* —erantzun zuen.

— *Zoaz berehala erregearen gaztelura, honek alaba gaisorik bait dauka eta ez omen dago inon sendatuko duen sendagilerik, han aurkituko nauzu; ni neskaren buru alboan ikusten banauzu, ez dago ezer eginik, esan iezaiozu arima prestatzeko, mundu honetan geratzen zaizkion orduak kontatuak bait ditu; baina ni neskaren oinetan jartzen banaiz agin ezazu kataplasma ximple bat jar diezaiotela eta laster bere burua argitu eta sendatuko da.*

Haruntz joan zen gure ikazkina, gaztelua kokaturik zegoen herrira, sendatze kontutan asko zekiela esanez, baina ez zioten kasurik egin eta aurrean bidali zuten.

Erregeak aditu zuen herrian bere alaba oraindik ikusi ez zuen petrikilu edo azti famatu bat zebilela eta ikazkina gaztelura ekarrerazi zuen.

Behin gazteluan, erregearen medikuek, hainbeste urtetako pribilegioak arriskuan ikusten zituzten, begirada gaizto batez agurtu zuten eta hauxe nahikoa ez izanik medikurik zaharrena ohean sartu eta mintxo itxuraz aurkeztuz zioten, gaixo zegoela esanez.

Erne zegoen, pentsatzen bait zuen tranparen bat prestatuko ziotela, baina hor zegoen koxka, nolako tranpa? ez zitzaion bururatzen gizon hark zaldi «pertxeroia» baino osasun hobegoa zeukanik.

Handik ihes egitea erabaki zuenean, bapatean, ohartu zen «herioa» gaixoaren buru alboan aurkeztu zela eta hori ikusi bezain pronto sententzia atera zitzaion: «Gizon honek ez du bi ordu baino gehiago iraungo bizirik, hortaz bere lagunak bazarete hobe izango duzue bere arima beste bizirako prestatzen laguntzea.

Gaixo zaharra, gazte baten modura salto batez zutik jarri eta dantzari hasi zen hantxe bildu ziren jende guztien aurrean, eta zer nolako farrak entzun ziren gazteluko zoko guztietan.



Laster hasi ziren sasiak prestatzen «fartsante» hura Jainkoa, Eliza eta Inkizioaren izenean erretzeko; prestateta hauek ordu eskaz zeramatenean mediku zaharrek, txoriak bezala «hanka luzatu» eta «seko» geratu zen; bapatean isiltasun hotz galant bat gazteluaz jabetu zen eta bakoitza korrika bere gelara gordetzera abiatu zen.

Erregeari beldurra urrundu zitzaionean eta betiko konpostura bereganatu zuenean, gazteluko mediku denak, hiru ezik, hanka aurrez bidali zituen eta ikazkina presaka eta korrika alabaren gelara eraman zuen eta han, neska goibel zuri polit haren ohe alboan jarri zuen, oraindik gazteluan gelditu ziren hiru sendagileen begiradapean.

Minutu erdia iraun baino lehen herioa aurkeztu zen eta neskatxaren oin ondoan jarri zen ikazkinaren pozarentzako aguro esan zien morroei belar gorritz egindako kataplasma bat bizkarrean jar diezaioteten, horrela egin eta arratsa iristerakoan alabaren aurpegiak dizdira berri bat zeukan eta hurrengo egunean ohetik altxa eta minez inoiz egon zenik ez zirudien.

Erregeak geratu izan ziren hiru sendagileak bidali zituen eta ikazkinari nahi zuen guztia eskeini zion, bere alaba sendatzeagatik eta handik aurrera bere mediku bakarra izateagatik.

Honela galdetu zion:

— Zer nahi duzu niregandik?

— Zure alabaren senarra izan eta hemendik aurrera patxadan bizi —erantzun zion.

Eta horrela gertatu zen, erregearen alabarekin ezkondu, urte on batzu bizi, baina gutxiena espero zuenean, Iraileko egun batetan lorategian zegoela «herioa» agertu zitzaion, berarekin eraman behar zuela esanez.

— Nola! orain hain ondo bizitzea lortu dudanean zurekin eraman nahi nauzu. Ez, hori ez!

— Bai gizon bai, arrats hartan zuk zeuk esan zenidan nik berdin tratatzen nituela, bai aberats eta bai pobreak, hortaz zatoz orain bertan nirekin, nire lurraldera—

— Itxaron, itxaron! Lehen utz iezadazu «AITA GUREA» eta «AGUR MARIA» errezatzen —adierazi zuen ikazkinak.

— Zure eskaera ontzat hartuko dut eta horrela izango da baina errezu horiek bukatu bezain laster nirekin etorriko zara nahi ez baduzu ere —erantzun zuen «herioak».

Ikazkina Aita Gurea errezatu ondoren mutu gelditu zen aurrera jarraitu nahi gabe eta bukatu arte ez zuela eramango hitza eman bait zion herioak.

— Nola eraman nezake gizon hau! —esaten zuen bere barruan herioak, eta buruari hamar mila buelta eman eta gero, aurkitu zuen eramateko modua. Herioa lorategi ondoko zuhaitz batetara igo zen, bere burua bota eta urkatu baten modura geratu zen. Ikazkinak, izuturik arnasirik hartu ezinik Aita Gurea eta Agur Maria! konturatu gabe errezatu zituen eta gelditu zen otoitz gehiago ez zekielako, bestela aurrera jarraituko zuen.

Bukatu eta gero herioak igitaiarekin ikazkinaren burua moztu eta berarekin eraman zuen.

Moldatzailea: — PELLO ORONOTZ —

